



Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2021eko otsailaren 5eko EBAZPENA, zuzendari berarena 2021eko otsailaren 2ko Ebazpena, Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen eta Diseinuko eta Arte Plastikoetako Irakasleen Kidegoetan Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, Lanbide Heziketako ikastetxeetan, Hizkuntza Eskola Ofizialetan, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikastetxeetan behin-behineko lanpostu hutsak zehazten dituen, aldatzen duena.

Hezkuntza sailburuaren 2020ko urriaren 22ko aginduaren (2020ko azaroaren 4ko EHAA) bidez estatu mailako lekualdatze-lehiaketa deitu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-kidegoetako funtzionario irakasleen artean.

2021eko otsailaren 1ean, Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratu zen Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak lanpostu hutsen behin betiko proposamena, lanpostu hutsen hasierako proposamenari egindako alegazioak aztertu eta plangintzako lurralde-batzordeei entzun ondoren.

Aurreko artikuluan aipatutako lanpostu hutsen proposamenaren arabera, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2021eko otsailaren 2ko Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen eta Diseinuko eta Arte Plastikoetako Irakasleen Kidegoetan Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, Lanbide Heziketako ikastetxeetan, Hizkuntza Eskola Ofizialetan, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikastetxeetan behin-behineko lanpostu hutsak zehazten dituen.

2021eko otsailaren 5ean aldaketa bat gertatu da lanpostu hutsen behin betiko proposamen horretan; hots, Makinen eta Mekanizazioa Mantentze-lanak espezialitateko lanpostu bat, D eredukoa, kentzea Eibarko LHII Armeria Eskolan.

Lanpostu hutsen proposamenaren aldaketa dela-eta, aldaketa hori Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2010eko otsailaren 2ko Ebazpena, Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen eta Diseinuko eta Arte Plastikoetako Irakasleen Kidegoetan Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, Lanbide Heziketako ikastetxeetan, Hizkuntza Eskola Ofizialetan, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikastetxeetan behin-behineko lanpostu hutsak zehazten dituen hutsik dauden behin-behineko lanpostuak zehazten dituen, eraman behar da.



Horregatik guztiarengatik,

EBAZTEN DUT:

Lehen artikulua.- Ondorengo terminoetan aldatzea Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2021eko otsailaren 2ko Ebazpenaren bidez argitara emandako behin-behineko lanpostu hutsen eranskina:

- PL2 VENCIDO LIBRES zutabearen 38. orritik hau erretiratzea: Makinen eta Mekanizazioa Mantentze-lanak lanpostu bat Eibarko LHII Armeria Eskolan.

Bigarren artikulua.- Interesatuek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute ebazpen honen kontra, 5 laneguneko epean, Hezkuntza Sailaren web orrian argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko otsailaren 5ean

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**